



Ikastetxea	Aixerrota BHI	Kodea	015109
Arloa / Jakintzagaia	EUSKARA	Zikloa / Maila	DBH 1
Irakasleak	Xabier Elgezabal – Oihana Arenal	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none">• Helburu orokorrak Premia komunikatiboei erantzutea:<ul style="list-style-type: none">➢ ulermena, ahozko komunikazioetan eta testu idatzietan➢ adierazpena, maila idatzian eta ahozkoan• Helburu xeheak<ul style="list-style-type: none">• Diskurtso idatziak eta ahozkoak behar bezala ulertzea eta interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio egoera batzuetan aplikatzeko.• Ahoz eta idatziz, adierazpenak koherentziaz, kohesioaz eta zuzentasunez egitea.• Egoera elebidunean, ikastetxeko giroan, euskaraz hitz egiteko jarrera garatzea.• Eleaniztasuna kultur aniztasun gisa balioestea.• Egoki komunikatzeko, hizkuntzaren erabilerari buruz hausnartzea.• Gizarteko hedabideak eta informazio-teknologiak erabiltzea eta izpiritu kritikoz baliatzea.• Ezagutza literarioa erabiltzea testuak ulertzeko eta norberarenak ekoizteko.• Literatur ondarearen bidez, norberaren kultur identitatea osatu ahal izatea.• Sentiberatasun estetikoa garatzea ereduzko literatur testuen eta ikus-entzunezkoen bidez.	<p>DBH2 Ebaluazio irizpideak (<i>Ea...</i>), bete diren ala ez, hiru alor hauetako proben eta datuen bidez neurtuko da:</p> <p>TL Eki 1 > 6 puntu</p> <ul style="list-style-type: none">4 Kontrolak1 Irakurmena (ulermena)1 Idazmena (adierazpen idatzia) <p>IL Irakur-liburua > 2 puntu</p> <ul style="list-style-type: none">2 Ulermena / hiztegitxoa / azalpena <p>J Jarrera > 2 puntu</p> <ul style="list-style-type: none">1 Orokorra: begirunea, aditasuna, lanak, materialak ekartzea, portaera1 Euskaraz mintzatzea <p>Oharra TL / IL / J puntuazio orokorrak (6 / 2 / 2) finkoak dira ebaluazio guztietan; barneko zatiketa aldatu egin liteke (egokitzapenak)</p> <ul style="list-style-type: none">• Oinarriak<ul style="list-style-type: none">> Azterketa idatzietan, puntuazioak adierazita egongo dira, bai guztira eta bai ariketaz ariketa.> Ebaluatze jarraia. Alderdi pragmatikoak kurtsoan hobetzeko aukera; eduki teorikoetan (literatura, gramatik, lexik...) berreskurapen sistematikorik ez.> Berreskurapen bidea. Ebaluazioz ebaluazio praxia.> Nahitaezkoa: 1 Lanak aurkeztea 2 Proba guztietara aurkeztea 3 Gainditzen ahalegintzea> Nahikotasun proba (ikasturte amaierakoa):<ul style="list-style-type: none">1 Gutxieneko eduki orokorrak (hizk - literatura)2 IL (irakur-liburua) azterketa: kurtsoan landutako liburuekin, ez berriren batekin.3 Kurtsoan egin ez diren lanak aurkeztu beharko.• Ikasturtea gainditzeko gutxienekoak<ul style="list-style-type: none">1 Helburu didaktikoak. Mailarako finkatutako kompetentziak eskuratzen ahalegintzea.2 Lanak eta azterketak. Agindutako lanak egitea eta epean aurkeztea.3 Gutxieneko emaitzak. NAHIKOA lortzea kontzeptu-prozedurazko edukien probetan, eta jarreran.4 Jarrera-portaera. Gizabidezkoa, materialak ekartzea eta erabiltzea, euskaraz egitea...



EDUKIEN SEKUENTZIA

(denbora-tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batean antolatuta)

1. EBALUAZIOA

(TL) *ELKARREKIN BIZI (HI) TZA*

- A) KONPETENTZIA. Ahozko-idatzizko elkarrekintza-egoera batean, informazioak ematea eta eskatzea.
- B) HELBURU DIDAKTIKOAK. Hartzaileari begirunez zuzentzea eta komunikatzeko teknikak zuzen erabiltzea
Informaziorako galderak egoki planteatzea eta koherentziaz erantzutea
Deskribapenetan elementuak eta ordena inferitzea
Deskribapenetan lexiko egokia baliatzea eta teknika zuzen aplikatzea
- C) KONTZEPTUAK. Elkarrizketa diskurtsoa – Pertsonen deskribapena – Lekuen deskribapena
- D) PROZEDURAK. Analisia > planifikazioa > diskurtsoa gauzatzea > Berrikusketa
- E) ZEREGINAK. Informazioa ematea eta eskatzea – Galdera eta erantzun egokiak formulatzea
Informazioa ematea pertsona deskribatzeko – Informazioa ematea lekuak deskribatzeko

(IL) **IRAKUR LIBURUA.** Finkoa edo aukeran / (*Kitano – Nire eskua zurean*)
Ulermena lantzea (lexikoa, egiturak) / Lanketa egitea / Ebaluatzea

IDAZMENA. Testu luzeetan: moldea (lerrokadak, kohesioa, ideien arteko lotura) + zuzentasunaren lanketa

MINTZAMENA. Testuen eta ariketen aurkezpenak, banaka edo taldeka

EBALUATZEKO JARDUERAK (3-4) Idatziak eta ahozkoak / ESKOLA KOPURUA: 45

2. EBALUAZIOA

(TL) *SENTIMENDUEN INBENTARIOA*

- A) KONPETENTZIA. Sentimenduen egoera batean, horien zergatiak adieraztea, literatur testuak baliatuz.
- B) HELBURU DIDAKTIKOAK. Sentimenduak adierazteko lexiko eta egitura egokiak erabiltzea
Literatur testuetan adierazten diren sentimenduak inferitzea
Deskribapenetan elementuak eta ordena inferitzea
Emandako testu poetikoak eraldatuaz, poemak sortzea
Emandako testuetan kategoriak identifikatzea
Hautatutako poemaren irakurketa adierazkorrean baliabideak egoki aplikatzea
- C) KONTZEPTUAK. Eremu semantikoak – Testu antolatzaileak - Kategoriak – Baliabide adierazkorrak
- D) PROZEDURAK. Analisia > erreferentziazko poemak eraldatzea > irakurketa adierazkorra
- E) ZEREGINAK. Hitzak eta sentimenduak identifikatzea – Helburuaren arabera hitzak hautatzea
Adierazpenetarako baliabide egokiak hautatzea – Irakurketa adierazkorra jende aurrean gauzatzea

(IL) **IRAKUR LIBURUA.** Finkoa edo aukeran / (*Asto bahitzaileak*)
Ulermena lantzea (lexikoa, egiturak) / Lanketa egitea / Ebaluatzea

IDAZMENA. Testu luzeetan: moldea (lerrokadak, kohesioa, ideien arteko lotura) + zuzentasunaren lanketa

MINTZAMENA. Testuen eta ariketen aurkezpenak, banaka edo taldeka

EBALUATZEKO JARDUERAK (3-4) Idatziak eta ahozkoak / ESKOLA KOPURUA: 45

3. EBALUAZIOA

(TL) *ZAHARRAK BERRI*

- A) KONPETENTZIA. Eskuratutako informazioak hartzailearen arabera egokittzea eta sekuentzia antolatzea.
- B) HELBURU DIDAKTIKOAK. Bilaketa bidez lortutako euskarrietako informazio zehatzak jasotzea fitxatan
Informazioak deskribapen erako eskema grafikoan antolatzea
Dibulgazio artikuluetako sarrerak baloratzea eta eraldatzea
Ideietako erlazio semantikoak adierazteko baliabideak aplikatzea
- C) KONTZEPTUAK. Dibulgazio artikuluen gorputza – Sarreraren funtzioak – Kohesioaren lanketa
- D) PROZEDURAK. Informazioa > fitxak egitea > egitura > sarrera > kohesioa
- E) ZEREGINAK. Informazioa hautatzea – Informazioa biltegitratzea, fitxen bidez
Testuaren planifikazioa gauzatzea – Dibulgazio artikuluen sarrera – Diskurtsoa gauzatzea

(IL) **IRAKUR LIBURUA.** Finkoa edo aukeran / (*Manolito Laubegi*)
Ulermena lantzea (lexikoa, egiturak) / Lanketa egitea / Ebaluatzea

IDAZMENA. Testu luzeetan: moldea (lerrokadak, kohesioa, ideien arteko lotura) + zuzentasunaren lanketa

MINTZAMENA. Testuen eta ariketen aurkezpenak, banaka edo taldeka

EBALUATZEKO JARDUERAK (3-4) Idatziak eta ahozkoak / ESKOLA KOPURUA: 45

**METODOLOGIA**

[edukiaren antolatzea, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denborearen antolatzea, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK:

- Motibazioari arreta: ikasleei helburuak jakinarazi eta jarduera positiboak egingo dira.
- Parte hartzeko aukerak emango zaizkie ikasleei: ikasgaiaren lanketan eta azalpenetan parte hartzeko izango dira, binaka, hiruak...; talde lana sustatuko da.
- IKTak ahalik eta gehien integratuko dira, eta euskarri desberdinetatik informazioak jasotzen trebatuko dira.
- Ikaskuntza autonomorako jarraibideak izango dituzte, eta laguntza.
- Ikasitakoa ahoz zein idatziz komunikatzeko askotariko ariketak egingo dira: ahozko testuak, azalpenak, gidioak lantzea...
- Komunikazioaren aberastasuna, egokitasuna eta zehaztasuna garatzeko zuzenketa-ariketak ere egingo dira.
- Ebaluazio hezitzailea bultzatuko da; baita ikaslearen auto-ebaluazioa ere.
- Ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatuko da: euskaraz lagunekin mintzatzea, jolasetan...

EBALUAZIO TRESNAK

[ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako lanak eta taldekakoak, behaketa-eskak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoak...]

- Testu liburua: *Ostadar 2*.
Horren osagarri: *Lan-koadernoak 3 eta 4*.
 - Irakurtzeko liburuak: eleberrak, narrazioak. Ebaluazioko, bat.
 - Mintegiak prestatutako material didaktiko osagarriak: testuak, grabazioak...
 - Kontsulta liburuak: hiztegi-entziklopediak...
 - Prentsa: albisteak, artikulak, erreportajeak...
 - Ikus-entzunezko baliabideak: bideoa, DVDa, proiektzioak...
 - Teknologia berriak: ordenagailuak, Internet
 - Irteerak: bisitak museoetara, erakusketak, kultur ekimen berezietan parte hartzea...
-
- **IKT baliabideak**
 - **Ikasgeletan:** arbel digitala, proiektorea, ordenagailua...
 - Irakasleok, **eskoletarako:** TL bertsio digitala (pdf), edukiak, erantzunak; hainbat webgunetan sarritan: argialetxeak, Susa, Badok, Txantxangorri, Bertsolaritza...
(ikus zehatz azken laukian)
 - **Mintegian:** intraneta, ordenagailuetako aplikazio ugari (testu prozesadoreak, kalkulu orriak, batu baseak); **irakasle baliabideak:** gure tresna teknologikoak: ordenagailuak, tabletak, smartphoneak...
 - **Ariketa digitalak:** www.atalak.eus webgunean, ikasleek praktika egiteko ehunka ariketa.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

- **Kalifikatzeko, parametroak edo erreferentziak** (balioak edo ehunekoak)

AHOZKO AZALPENA

- 1 Edukia: ideia nagusiak, kontzeptuak > 0,25
- 2 Moldea: azalpenaren antolatzea, informazioen mailaketa, kohesioa > 0,25
- 3 Aberastasuna-zehaztasuna: egiturak, lexikoa... >0,25
- 4 Zuzentasuna: egiturak, lexikoa > 0,25

IDAZLANAK

- 1 Edukia: informazioak > %25
- 2 Moldea: zehaztasuna + aberastasuna >%25
- 3 Zuzentasuna: sintaxia eta ortografia > %50

EUSKARAZ MINTZATZEA

- 1 Irakasleekin beti > 0,2
- 2 Ikasgelan, ikaskideekin > 0,4 (albokoak / gainerakoak)
- 3 Ikastetxe barruko harremanetan (karrejuak, patioak, jantokia...) > 0,4

LANAK

- 1 Aurkezpena > %20
- 2 Edukia > %30
- 3 Moldea > %30
- 4 Zuzentasuna > %20



EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

[indartzeko eta zabaltzeko neurriak, egokitzapenak antolamenduzkoak eta metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, berreskurapen-modua...]

ANALISIA:

- Ebaluazio bakoitzean, Ikasketa Burutzako emaitzen txostena jaso ondoren, emaitzen analisia mintegiko irakasleen artean: mailaka edota taldeka.
- Egokitzapenak planteatuko dira: materialak (irakur-liburuak, fitxak, material osagarriak...), metodologia, didaktika, ebaluatze modua, berreskuratzeko bidea...
- Taldeen izaeraren (maila) arabera hautatuko dira irakur-liburuak ere: hizkuntza maila, istorioaren zailtasuna, luzera... faktoreak kontuan hartuta.

OHARRAK

- **Ikasleei sintesia.** Maila bakoitzeko programazioaren sintesia, funtsezko informazioak biltzen dituen orritxo batzuetan banatzen zaie ikasleei:
 - Jakintzagaiaren helburuak
 - Baliabideak
 - Programazioaren sintesia, hiru ebaluazioetarako: unitateak, eskola kopuruak
 - Ebaluatze sistemaren sintesia, lauki batean: puntuen banaketa, azterketak eta probak, motak, bakoitzaren balioak
 - Kalifikatzeko parametroak edo erreferentziak: osagaiak, proportzioak
 - Berreskurapen bidearen azalpentxoak
 - Ikasturtea gainditzeko gutxienekoak, puntu nagusiak eta zehaztasunak

- **Material lagungarriak** (webguneak)

Ikasleentzat hainbat dokumentu eskuragarri izango dira honako helbideetan:

atalak.eus
temati.wikispaces.com
aixerrota.hezkuntza.net

Horiez gain, beste hainbat ere gomendatuko zaizkie edota erabili beharko dituzte. Hona batzuk:

eu.m.wikipedia.org
berria.eus
euskaljakintza.com
hiztegia.net
xuxen.com
armiarma.com
susa-literatura.com
argia.com
bertsoa.com
bertsolari.net
elhuyar.org
badok.info
txantxangorria.eu